

Gazteak eta gazteen parte-hartzea

Alvaro Marcos
Parte Hartuz taldeko kidea

Zaila da gazteei buruz hitz egitea horrela, oro har. Izan ere, gazte-mota asko daude, gaztaroa bizitzeko erak bezainbeste. Adinari erreparatuz gero, estatistika gehienek gazteak 18-30 urte bitarteko pertsona oro direla adierazten digute. Tarte zabal hori gauza batzuetarako baliagarria izan arren, gure ikuspegitik zabalegia da, adin-tarte horretan sartzen diren pertsonen bizipenak, nahiak eta espektatibak oso ezberdinak direlako. Hori dela eta, artikulu honetan adin-tartea gehiago mugatuko dugu, eta zenbait datutarako erabiltzen den adin-tartearekin bat egingo dugu, 18-25 urte bitartekoa ezarriz. Gainera ez dugu egingo ikuspegi itxi batetik; adin-tarte hau aukeratzeko pizuzko arrazoi bi egon badaude: alde batetik, huraxe delako gazteen berezko adierazgarria bizitzeko denbora-tarterik aipagarriena, esperientziak era intentsiboan bizitzeko garaia alegia, eta beste alde batetik, 25 urterekin betetzen delako gure antolakuntza politiko orokorrean, Europako Batasunean, gazteen emantzipazioa bideratzeko jartzen den batez besteko adina. Datu esanguratsua ezbairik gabe, egoeraz hausnartzeko eta aldarrikapenak finkatzeko baliagarria.

It is hard to talk in such a way about young people over all. Indeed, there are many kinds of youths, as many kinds as there are ways of living one's youth. As for age, statistics show us that most are generally young people aged 18-30. Although this broad gap is useful for some things, we believe it gets to be too broad from our point of view because experiences, desires, and expectations of people in those age brackets differ greatly. Thus, in this article, we shall limit the age bracket more and we shall work into it age ranges used for certain data by establishing a 18-25 year age bracket. Moreover, we shall not do it from a closed point of view: there are indeed two sound reasons to chose this age bracket: on one hand, because that is the natural indicator for young people of the most extraordinary period of time for them to go through, i.e. the time when various kinds of intensive living experiences take place while, on the other hand, it has been 25 years since our overall political arrangement has been around and the age when the average age of young people's emancipation in the European Union takes place. The significant piece of information is doubtlessly useful to reflect on the situation and to formulate statements.

1. Sarrera: gure ikuspegia

Egon badaude gazteen gaineko begiradak egiteko oso era ezberdinak. Gailentzen direnak neutroak dira: datuak bildu, galdeketak egin eta erantzun-konklusioak aurkezten dituzte. Horrelako ikerketen balioa orain ezbaian jarri gabe, guk nahiago dugu beste ikuspegi bat abian jarri hasiera-hasieratik. Gure ikuspegia eraldatzailea da, gure gizartean gauzak aldatzeko premia dagoela ikusirik, ekinaren ekinez aldateta horiek gauzatzera eta hori posible egiteko baldintzak sustatzera bideratzen dena, hainbat modu eta eratako parte-hartzea horren tresna eta helburu izanik. Ikuspegi horren arabera, gazteak zenbakiak edo adin-tarteak baino gehiago dira, badira eraldaketa hori bideratzeko eragile eraginkorrak, euren ibilbide propioa eraikitzen ari direnak. Etorkizuna bai, baina baita egungo errealitatearen osagarri ezinbestekoa, beren eskubide eta betebeharrekin, beren nahiak eta aukeraketekin, praktiketara eraman nahi dituztenak. Hitz batean esanda, subjektu aktibo eta biziak, gaurdanik euren lekua eskatzen dutenak.

Puntu honekin bukatzeko, gauza bat adierazi behar da artikuluaeren metodologiaren gainean: azalpen luzeak baino gehiago errealitate baten puntu batzuk adieraziko dira, gehienetan laburki, azalpen oso baten osagarri. Ziur asko, horietako zenbait puntuk berezko azalpena beharko luke baina hori ez dugu egingo, alde batetik, luze eta aspergarri ez suertatzeko, eta, bestetik, artikuluaeren logika orokorra ziurtatzeko eta indartzeko.

2. Ikuspuntu orokorra: ziurgabetasuna

Aldaketa-garaian gaude. Ziur asko mende honen hasieraren ezaugarri sokenetariko bat abiadura azkarra da. Gertaerak ziztu bizian jazotzen dira etengabe, bata bestearen atzean, eta zentzu guztietan, bai norberaren bizitzan, bai gure inguru hurbilean eta gure gizartean, baita mundu-mailan ere. Horrek deskolakatu egiten gaitu eta gauzak bizitzeko era eta ikuspegia aldarazten dizkigu.

Gazteen munduan joera nagusi hau are eta nabarmenago gertatzen da. Garai berri hauetan jaio eta haziak, gazteengan askotariko eraginak eta aztarnak somatzen dira. Horiei arreta jarriko diegu orain, lau oinarritzko ardatzetatik abiatuak, baina lehenago gazteen egungo errealitate objektiboa baina batez ere subjektiboa (haiek horrela adierazten baitute) laburbil dezakeen kontzeptua aipatuko dugu: ziurgabetasuna.

Izan ere, gazte gehienek euren bizipenetan oinarriturik gehien sentitzen duten elementua ziurgabetasuna da, etorkizunari konfiantzaz baino areago errezeloz begiratzeko eta somatzeko era, oraina ulertzeko eta gehienetan konpartitzen ez dituzten klabeetan bizitzeko beharra. Horregatik egunerokoa topera bizitzea (“presentismoa”) eta erlazio afektibo hurbilak (lagunartekoak, familia) hain garrantzitsuak izatea ulergarria da oso.

2.1. Ikuspuntu ekonomikoa: mehatxua

Neoliberalismoa jaun eta jabe den honetan merkatuak agintzen du. Ñabar-durak, kritikak eta erresistentzia-saioak egonda ere, egun merkatuak eta bere ezinbesteko bidaidea den kontsumoak joku-arau gehien eta oinarritzkoenak jartzen

dituzte. Eta arau horien artean globalismo ekonomiko berriak jainko guztien pare jar dezakegun hitz-ikonoa erabiltzen du jarrera eta mugimendu guztiak zuzitzeko, gure egunerokotasuna hain era zorrotzean baldintzatzeko: lehiakortasuna, konpetitibitatea.

Horren ondorio latzak denok bizi baditugu ere, gazteek era ankerragoan nozitzen dituzte, bai zuzenak baita zeharkakoak ere. Inkesta guztietan gazteek seinalatzen dituzten arazorik larrienak baino ez ditugu kontuan hartu behar: langabezia (eta ezegonkortasuna) eta etxebizitza. Errealitatea oso krudela da bizitzan horren funtsezkoak diren bi arlo horiei dagokienez, eta gazteak hasi dira barneratzen, batez ere emakumezkoak, errealitateak berak behin eta berriz adierazten diena: etorkizuna ez da batere argia, borrokatu beharra dago, eta lehenengo aldiz aspalditik, egungo gazteek ez dute ziurtatuta etorkizunean euren gurasoek lorturiko bizi-maila. Etorkizuna mehatxua da, laburbilduz.

Beraz, ezinbestekoa da dena ematea, formazio on-ona izatea, urriak diren aukera eta postuetarako lehia bizian aritzea, gehienetan bizitza osorako diren kredituak jasotzeko eta ordaintzeko aukera, behintzat, izateko. Beste alde batetik, ikuspegi honek elkartasunerako eta mobilizazioetarako zirrikitu gutxi uzten ditu eta parte-hartzea eta gazte-mugimendua bultzatzeko eta eraiketzeko aukera eremu isolatuan kokatzen du.

2.2. Gizarte-ikuspuntua: ahulezia

Ikuspuntu ekonomiko hori gailentzen den neurrian, pertsonen joera indibiduala nagusitzen da. Norberaren posizioa eta statusa irabazi beharra dago eta horretarako bakoitzaren ahalegin etengabea ezinbesteko bihurtzen da. Batez ere, aukeraz edo adinaz bere postu hori zeharo irabezteke dutenentzako, gazteen-entzako, hain zuzen ere.

Horren ondorioz etekin azkarra eta zuzena ez duten portaerak eta lehentasunak alboratzen dira, kolektiboa eta komunitarioa den orenen kalterako. Gauzak horrela, ideologiak edo jarrera militanteak baztertzen dira, arrazoi praktikoengatik: ez dago denborarik, ez dago emaitza zuzenik. Gizarte-sare orokorrak ahultzen dira, elkartasuneko mugimenduek katea eteten ari dela ikusten dute: gero eta jende gutxiago lan eskergaren aurrean aritzeko, gero eta jende berri, gazte, gutxiago, gure elkarte eta taldeetan.

Gizarte-mugimenduek, oro har, eta gazte-mugimenduak zehazki, iretenbiderik gabeko egoera batean ikusten dute beren burua. Indibidualismo zuzenaren eraginez, gero eta jende gutxiago, gero eta partaide gutxiago. Administrazioen jarrera urruna eta mesfidatia dela eta, laguntza eta baliabide urriak. Eta batez ere, gailentzen ari den pentsakera-paradigma berrian, non musu-truk aritzea eta helburu kolektiboak lortzeko arrisku pertsonalak bereganatzea ulertezin bihurtzen den, eragingarriak izateko zailtasun itzela. Bai gauzak aldatzeko baita pentsaerak aldatzeko orduan ere. Ez da harrizkoa jendea erretzea eta etsitzea, isolamendua nabaria baita.

2.3. Ikuspuntu politikoa: laguntzarik eza

Patetikoa da egungo botere politikoak botere ekonomikoarekiko duen mendekotasuna. Demokrasiaren beraren kontzeptua eta esanahia arriskuan jarritz, alderdi politikoek eta administrazioek garatzen dituzten mendekotasun-portaera horiek ohikoak ditugu jadanik. Ematen du neoliberalismoari zuzenean loturik dauden axioma batzuk (lehiakortasuna edo "0 defizita", kasu) politika egiteko ezinbesteko baldintzak direla, ezbairik gabe, eta noski, bakan batzuen onerako. Bide hau oso arriskutsua da, batez ere politika ekonomikoen eta gizarte-politikaren artean halako oreka (Ongizatezko Estatua) bilatu nahi izan duen Europarentzat.

Berezko faktoreez aparte (burokrazia, barne-demokraziarik eza, klientelismoa, ustelkeria...), aipatu arrazoiak badu eragin handia egungo egoera ulertzeko: alderdi politiko eta politikatik oso urrun bizi dira biztanleak, haien arteko distantzia gero eta nabariagoa da. Gazteen artean joera orokor hori biderkatzen da eta egungo gazteak alderdi eta praktika politikoetatik oso urrun daude. Horiek ez dute jasotzen gazteen interesa ezta konfiantzarik ere. Gazteen premia eta beharretatik oso urrun kokatzen dituzte euren interesak alderdi politikoek eta egungo gazteek lehentasunak barneratuta dituztenez gero, urruntasunaz eta mespretxuaz aparte, gailentzen den sentzazioa sinesgarritasunik ezaren kontzeptuan jaso dezakegu; beharrezkoak diren kontuetarako ez dituzte laguntzen eta soilik komeni zaienean deitu eta bilatzen dituzte gazteak.

2.4. Ikuspuntu kulturala: erlatibismoa

Abiadura azkarrean doan gizartean erlatibismoa da nagusi. Kultura batean oinarrituta dauden balioak desitxuratzen dira horren ondorioz. Egun gure arbasoek eta gurasoek bizitza ulertzeko, interpretatzeko eta aurrera ateratzeko zituzten balioak ezbaian daude. Erreferente irmo eta finkoak galtzen ari dira, erlijioak bizitza ulertzeko bide bezala beren indarra galtzen ari dira eta egun nagusitzen diren erreferente berriak askotarikoak dira, ahulagoak, irudian, arrakastan edo modan oinarritutakoak.

Horrekin batera horrenbeste aipatu den pentsamendu bakarra ezartzen da, neoliberalismoaren axiometan eta kontsumoaren arauetan finkaturik. Deigarria da hainbat gizarte-kontutan (bikoteak, homosexualitatea, abortoa...) zabaltzen diren aukera berriak ikusita, komunikabideek ere bultzatuta, zein kritika gutxi egiten den ekonomiaren eredian eta kontsumoaren erlijio berrian, zein gutxi agertzen diren planteamendu ezberdinak, zein estu diren errespetatu beharreko joko-arauak. Egia esan, honek iruzur-itxura hartzen du.

Parametro berri hauetan haziak, gazteek gizartean bizi den paradoxa hori azken muturreraino daramate. Horrela, gizartean integratzeko lehian balio ekonomizista horiek barneratzen eta jarraitzen dituzte gehienetan, gero, beren espazioetan eta beren harremanak sustatzeko berezko kodeak eta balioak bizi badituzte ere. Hori gazteen aisialdian nabari gertatzen da, non esperimazioak, ondo pasatzeko grinak, ahazteko saiakerak eta harreman berriak sortzeko gogoak bat egiten duten gazteentzako berezko espazio nagusian, gauan, hain zuzen ere.

Oso gogorra da sistemak inposatzen dituen eta praktikara eraman nahi diren balioen arteko aldea, eta normalean, denborarekin, gazteek (jada ez hain gazte) balio nagusien asimilazioa egiten dute. Domestikazio-saioaren garaipena, alegia.

3. Ikuspegi berrirantz: arriskatzea

Ziurgabetasunaren hitz potoloan jasotzen den ikuspegia aztertu ondoren, derrigorrean egin behar dugun galdera hurrengo hau da: zer egin? Nola bultzatu gazteen parte-hartzea adierazi dugun ikuspegi eraldatzaile horretatik? Nola indartu eta garatu oraindik bizia eta indartsua den gazteen antolakuntza?

Egia esan, erantzuna ez da erraza, tamainako erronkak eta zailtasunak aurrean izanik. Baina zeozer argi eta garbi baldin bada, hauxe da, erantzuna globala izan behar dela, gizartearen eredu osoa ezbaian jartzen den neurrian. Artikulu honen helburua gazteak eta euren parte-hartzea aztertzea eta bultzatzea izanik, puntu hauen gainean egingo dugu gogoeta eta proposamena, ikuspegi orokor hori nolabait jasotzen saiatuz.

Hala ere, gaia orokorra denez, hasteko, erabiliko dugun ideia eta planteamendu nagusia adierazi nahi dugu, zenbait puntu garatzeko izango dugun ikuspegi orokorra: arriskuak hartzea, alegia. Izan ere, egungo ereduaren gabeziak nabarmendu ondoren, gazteen autonomia eta parte-hartze erreala sustatzeko edo giza eraldaketa eta planteamendu kolektiboak bultzatzeko, ezinbestekoa egiten zaigu planteamendu berriak mahai gainean jartzea, ideia eta borondate berriak, irekiak, argiak lantzea, baita sor daitezkeen akordioetarako zein gertatuko diren akordio falta horietarako ere, joera arriskatzailea edo ausarta izatea.

Jarraian, ikuspegi honetatik pausoak ematekotan planteatzen diren proposamenak aurkeztuko ditugu. Batzuk beste batzuk baino “errealistagoak” dira, epe ertain batean gauzatzeko ikuspegitik. Hala ere, pentsatzen dugu beharrezkoa dela denak kontuan hartzea, emango diren (aurrera)pausoak bide onetik —gure ikuspegitik, noski— doazela ziurtatzeko.

3.1. Dagoena ezagutzea

Gazteek bizi duten egoera orokorra jorratu eta gero, oraingoan gazteen parte-hartzeari begiratuko diogu, gazte-mugimendua deritzonaren puntu nagusiak zein diren jakiteko ahaleginean. Horretarako, mugimendu honen ezaugarriak, zenbait indargune eta ahulezia eta dituen erronka batzuk aipatuko ditugu.

Hainbat arrazoiren ondorioz ahultzen ari den arren, gazte-mugimendua eta elkartegintza oraindik egituratuta eta bizirik dagoela adieraz dezakegu. Gazteen % 35ek elkarte batean parte hartzen du eta kirol-arloan aritzen direnak kendu ondoren, % 20 zenbait esparrutan (giza bazterketa, lankidetzeta, astialdia, elkartasuna, euskara, kultura, aldarrikapen politikoa...) sartuta dago, nolabaiteko gizarte-lanak eginez. Europarekin alderatuz, batez bestekoa nahiko antzekoa dugu, beraz.

Bestetik, mugimendu honen ezaugarriei erreparatuz gero, aberasgarria da (lan-arloak asko eta ezberdinak dira), askotarikoa (dauden ikuspegi eta lan egiteko erak ere ezberdinak dira), kritikoa (gizarte-ereduarekiko jarreretan), eraldatzailea

(gehienbat udal-mailan lan eginez, oinarrian dagoen gizarte-eredua aldatzeko proposamenak egiten dituzte) eta independentea (alderdi politiko eta beste eragile faktikoetatik nahiko urrun daude orokorki). Ahulezien artean aipa ditzakegu oraindik sare eta nodoen bidez lan egiteko zailtasunak eta kulturarik eza, nahiz eta gazte batzuen funtzionamendua nodo horietan eta teknologia berrietan oinarrituta egon; udalez gaineko egituretan parte-hartze eskasa; elkarren arteko ezagupen urria, eta arrazoi pertsonal edo politikoak direla medio gertatzen diren blokeo eta hausturak.

Erronkeei dagokienez, lan komuna garatzea eta ikuspegi antzekoa, eraldatzai-
lea kasu honetan, duten taldeen artean lankidetzarako proposamenak abian jartzea lehentasunezko puntua da. Egiten duguna azaltzeko gizartearekiko komunikazio-politika berria martxan jartzea ere garrantzitsua da, horretarako teknologia berriak baliatuz komunikabide propioak sortuz, bide alternatiboak erabiliz eta hedabide masiboak kontuan hartuz, batez ere, publikoak direnak.

Administrazio publikoekin izaten diren harreman urriak, batez ere udal-mailan eta urtero-urtero jasotzen diren diru-laguntza eskasei lotuak, kezkatzeko puntua dira. Oro har, administrazioen aldetik ez dira ematen pausu eraginkorrak, ez helburuetako bat gauzatzeko, hau da, elkartegintza sustatzeko, ezta elkarte eta taldeen gutxienerako azpigiatura ziurtatzeko ere. Horretan guztian nolabaiteko aldaketa gertatzen ari da, gazte-planak direla medio edo lurralde batzuetan kutxak gauzatzen ari diren lankidetzaprogramak direla medio. Hala ere, hurrengo puntuetan sakonduko dugu gai honetan.

Mugimendu zabal, askotariko eta aberasgarri honen berri gizartean ematea denon ardura da. Taldeena eta sareena, komunikabideena eta botere publikoena ere bai. Ez bakarrik zer eta nola egiten den adierazteko, baizik eta horien zergatiak ere plazaratzeko; atzean dagoen ideologia eta ikuspegia gizartean txertatzeko beharrea gaude, alternatibak egon badaudela irudikatuzko, gizartearen beste esparru eta kolektiboekin harreman etengabea egoteko eta gure sarea elikatuzko, besteak beste.

3.2. Autonomia bultzatzea

Arestian esan dugun bezala, Europar Batasunean batez besteko gazteen emantzipazio-adina 25 urtetan kokatzen da. Euskal Herrian, aldiz, adin hori nabarmen igotzen da, 30 urtetan dagoelarik. Ezbairik gabe datu adierazgarria bezain kezagarria dugu hau, horren atzean gazte askoren berezko egitasmoak garatzeko zailtasuna edo ezintasuna adierazten duen neurrian.

Esparru eta gune ezberdinetan beren nahiak eta helburuak esateko aukera duten bakoitzean, gazte antolatuen ahotsek denon artean eraikitzen ari garen gizartean euren lekua aldarrikatzen dute behin eta berriz. Eta horretarako planteatzen dituzten arrazoiak ez dira makalak. Alde batetik, gazteek etorkizuna bai, baina batez ere, oraina plural eta aberasgarria dela diote, gizartearen garapenerako eragileak. Horrela, beren lekua aldarrikatzen dute, euren ikuspegi eta egiteko erak sustatzeko eta eragiteko. Gainera, indarrean dagoen gizarte-ereduarekin nahiko kritikoa agertzen direnez, aukera eskatzen dute ezberdina izango den gizarte- eta pertsona-ereduak eraikitzeko, egunerokotasunetik abiatuta. Horretarako beren

erantzukizuna eta ardura adierazten dute, eta azkenean abisua ere luzatzen dute: belaunaldi berri oso baten energiak eta eraikitzekeo grinak ezerezean gelditzeak gizarte osoaren kalterako suposatuko lukeen prezioa gehigizkoa dela, jasangaitza.

Beraz, gizartearen gazteak protagonistak izatea eta euren ikuspegitik eragile eraginkor bihurtzea da gazte-mugimenduak egiten duen eta gizarte osoak jaso eta erantzun behar duen eskaera eta erronka. Eta horretan botere publikoek erabateko erantzukizuna dute, eskaera hori bideratzeko ahaleginean. Ziur asko hemen dago gazteen gainean administrazioen eta horien atzean dauden alderdi politikoen hurrengo urteetarako eginkizunik garrantzitsuena: gazteen nahiak, konpromisoak eta egiteko erak ezagutzea, elkarrekin lantzea eta abiatzea.

Horrek, dudarik gabe, borondate politiko irmoa eta zabala eskatzen du, agenda politikoan lehentasunen artean gazteen gaia kokatzeko beharra. Neurri batean, azken urteetan aurrerapauso batzuk eman dira gazteen aspaldikoa den aldarrikapen honetan, eta egun gazte-politikak aurrera ateratzeko tresna batzuk egon badaude, gazte-planak, kasu. Hala ere, hau ez da nahikoa eta hastapenetan gauden honetan, benetako gazte-politikak sortzeko eta horiek martxan jartzeko tresneria egokia lortzeko, gazteekin batera lantzeko prozesua abian jartzea behar-beharrezkoa dugu. Honi buruz ariko gara hurrengo atalean.

Alde honetan bukatzeko, oso argi geratu behar den puntua adierazi nahi dugu: ez da posible gazteak gizartearen eraikitzekeo benetako eragileak izatea, baldin eta pairatzen dituzten bizi-baldintza kaskarretan hobekuntza nabariak gertatzen ez badira. Hau da, langabezia, ezegonkortasunean edo etxebizitzan, gai erabakigarrietan, taxuzko neurriak jasotzen ez badira, administrazioek gidatuta eta gizarte-eragileek lagunduta, ez dago gazteek benetan parte hartzeko aukerarik. Gauzak horrela, bizi-baldintzetan konpromiso sendoak hartzea gutxieneko baldintza da, aurrerago aipatuko ditugun gazte-politika parte-hartzaileak sustatzeko.

3.4. Akordio-eremuak bilatzea

Hala gazteen parte-hartzea bultzatzeko eta euren eskakizunei erantzuteko nola botere publikoek gizarte bidezkoago eta integratuagoa lortzeko dituen ardurak betetzeko sor daitezkeen topagunea gazte-politikan egon daiteke. Parte-hartzaileak, erreferentzialak, ondo hornituak eta akordio zabalean oinarrituriko gazte-politikak, alegia.

Ikuspegi orokor batetik, espazio publikoa indartzeko beharra dago eta Mendebalde osoan, baita Euskal Herrian ere, publikoa dena murrizteko dagoen jarrera orokorra gelditzeko ahalegina egin behar da, guztion ardura den eremu kolektiboa hobetzeko pertsona bakoitzaren konpromisoa bilatuz. Horretarako, gazteen kasuan, haien inplikazioa eta parte-hartzea jaso eta kudeatuko dituzten gazte-politikak sortzea da helburu nagusia.

Arestian esan dugun moduan, azken urteetan ahalegin batzuk egin dira zenbait administrazio publikoren aldetik, eta egun akordioetarako baliagarriak izan daitezkeen zutabe batzuk jarrita daude: gazte-planen tresna kualitatiboaren finkapena, nolabaiteko borondate eta konpromiso politikoa, gazte-politika integralak garatzeko konpromisoa, gazte-antolakunde batzuen prestutasuna eta honen gaineko

gogoeta eta diskurtsoa, demokrazia parte-hartzailea garatzeko lehenengo saiakerak eta horren beharraz eginiko hausnarketa, besteak beste.

Horregatik, posible da akordio-eremu zabalera ailegatzea; gazteen, botere publikoen eta, ahal den neurrian, gainerako gizarte-eragileen babesela jasoko duen akordioa, alegia. Horretan, duten garrantzia eta eragina ikusirik, komeni izango litzateke botere ekonomikoen ordezkari batzuen inplikazioa ere lortzea, kutxena adibidez.

Akordio horren edukiei buruz, duela gutxi EAEn gazte elkartuen topagunea den Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egindako txosten batean topa dezakegu aurrerapausoak emateko nolabaiteko “ibilbide-orria”. Gauzak horrela, edozein gazte-politikak ondoko ezaugarriak izan behar dituela uste dugu:

- Gizarte-eragileen artean eta gazteekin izango den eztabaidaren garapena.
- Gazteen eskubideak jasoko dituen Eskubideen Gutun baten onarpena, gazteen erabateko herritartasuna kontuan hartuko duena.
- Gazteriaren Lege baten garapena, Eskubideen Gutunean jasotako eskubideei bidea irekiko diena.
- Gazte Planaren bidez aurrera eramango den benetako gazte-politika baten sustapena eta planotan gazte-ikuspegiaren barneratzea bermatzea.
- Toki-mailara, udal-mailara berbideratzea.
- Administrazio publikoetako Gazteria Sailaren errefortzua (sendotzea).
- Aurrekontuen handitzea eta gazteriari espresuki zuzendutako zerbitzuen sustapena.
- Gazteria eragileen errefortzua.

Beraz, zer egin, noren artean eta zer lortzeko, badakigu. Orain, alde guztien konpromisoak eta borondatea abian jartzea baino ez da falta. Arriskuak bereganatuz.

3.5. Akordiorik eza kudeatzea

Lehen esan dugun bezala, gazteen parte-hartzea askotarikoa da, eremu eta era zabaletan gauzatzen dena. Eta gazte-politika eraginkor horiek egitean, planteamendu eta ikuspuntu guztiak jasotzen saiatu behar da. Hala ere, posible da dauden ikuspuntu guztiak jasotzeko ezintasuna gertatzea, borondate falta edo bestelako arazoak direla medio. Kasu hauetan, akordioa lortu ezean, adostasun falta hori kudeatzeko erak bilatu beharrean gaude. Joko-arau minimoak izaten saitzea, eragile guztiek konpartituak direnak, denon ardura da. Eta elkarrizketarako gune iraunkor eta diskretuak abian jartzea interesgarria izan daiteke hori bideratzeko.

Horrela, batzuetan ikuspegi ideologiko eta filosofiko batetik administrazioekin harreman bereziak izan nahi ez dituzten gazteei dagokienez —globalismoaren aurkako mugimendua edota gaztetxeak gune autogestionatu gisa eraiki nahi dituztenak kasu—, parte hartzeko dituzten egitasmoak eta ekimenak sustatzeko aukera ahalbidetzeko beharra dago, neurri errepresiboak ekidinez eta

harremanetarako espazio egokiak eta malguak eskeiniz. Ezin dugu ahaztu, askotan, esparru horietan mugitzen diren gazteak sormen, konpromiso eta adorea aldetik, gauza askotarako aintzindariak eta erreferenteak badirela.

Bibliografia

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Plan Estrategikoa. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Bilbao (2002).
- EAEko Gazte Elkartegintzaren Liburu Zuria (2003): "Gazte Plana" bildumaren barruko 9. zenbakia. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. Gasteiz.
- Euskadiko Gazteak (2004): "Gazte Plana" bildumaren barruko 13. zenbakia. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. Gasteiz.
- Navarro, V. (2002): *Bienestar Insuficiente, Democracia Incompleta*, Anagrama. Bartzelona.
- Swift, R. (2003): *Democracia y participación*, Intermon Oxfam, Bartzelona.

